

JAIOTZATIK EZKONTZARA ARTEKO OHIKUNEAK GOIZUETAN (Nafarroa)

José Huarte*
Etniker-Navarra
Universidad de Navarra

El presente trabajo se ha realizado en la villa navarra de Goizueta. Contiene las respuestas a las preguntas del cuestionario *Guía para una encuesta etnográfica*, elaborada por José Miguel de Barandiarán. Apartado II. *Usos del Grupo Doméstico. Nacimiento y bautismo*, preguntas 174-188; *Infancia y juventud*, preguntas 189-198; *Noviazgo, matrimonio y boda*, preguntas 199-237.

Este municipio navarro que lo constituyen los núcleos de población de Aitasemegi, Alkanzuriain, Alkasoaldea, Artikutza, Espidealdea, Goizueta (núcleo) y Tartazu, está situado en el valle del alto Urumea, a 67 km al norte de Pamplona. Su población era de 1.055 habitantes en el año 1990. Lo separa de Gipuzkoa la estribación montañosa de los montes Mandoegi (1.043 m). La parte suroeste comprende las mayores alturas, correspondientes a los picos de Mendaur (1.136 m), Loizate (1.038 m) y otros. La villa de Goizueta se halla enclavada a ambas orillas del Urumea, río que desemboca en el mar Cantábrico a través de San Sebastián.

La industria es la actividad principal de la población sin dejar de lado la agricultura y sobre todo la ganadería. La importancia de la superficie comunal hace que la población de Goizueta potencie la ganadería, sobre todo bovina de carne y leche, en detrimento de la agricultura.

II. ETXEKO TALDEAREN OHITURAK. JAIOTZATIK EZKONTZARA ARTEKO OHIKUNEAK

174. *Jaiotza eta bataioa: Haurren sinesmen herrikolaren arabera, haurrak nondik etortzen ziren? Nork biltzen zituen?*

Haurrak kanpotik etortzen zirela esan zaie betidanik ume txikiei, Parisetik gehienez, eta balta zikoinak ekar-

tzen zituela ere. Horrelako ustea noizkoa den galdetzen diete beren buruei gure informatzaileek, baina haiek ez dute besterik aditu. Uste honetan iraungo zuten ume koskorrek, etxean ez baitaie beste berririk ematen, baina ume taldeetan ez zuen huts egiten jakinduriaz ornituren batek, umeak egiaren bidean ipintzeko. Parisen zertan iharduten zuten jaiotzeko zeudenek galderari ez diote erantzunik eman gure informatzaileek. Sexu heziketa dela eta badakite zehatz-mehatz gauzak nolakoak diren oraingo neska-mutikoeak. Eta norbaitek kalean ikasi ez badu, ikasle txarra delarik, baditu telebistan eta irratian ginekologoak baino gehiago jakiteko aukerak.

Goizuetan bazen medikua, baina azken momenturaino ez zitzaion medikuari deirik egiten. Urak botatzean eta oinazeak hastean emaginarengana jotzen zuen etxeke emakume batek, amak edo adineko ahizpak gehienez. Etxean sartzean, emaginak erditzeko zegoena ikusi eta berehala bere aginteak ematen zituen: ur ugari berotzea, guraizak garbitzea, xaboia prestatzea, botikara lokarri berezi baten bila emakume bat bidaltzea. Botikarik ez bazegoen lokarri hori emaginak berak prestatzen zuen arreta eta kontu handiz, jaioberriaren jantziak prestatzea eta abar. Berak ematen zizkion erdi-hurrenari ahal zituen laguntza guztiak: egokerarik aproposenean ipini, gorpuzta agurrasez igurtzi, izter eta giltzurritan aldea batez ere... Garaiz heltzen bazen medikua emaginak atzera egiten zuen, arazoa medikuaren eskuetan utziz, medikuari ahalik eta gehien laguntzeko eta etxeke emakumeari beharrezko aginteak emateko. Baina medikurik ez bazen, edo garaiz heltzen ez bazen bazekien berak arazoari erantzun orokorra ematen.

Etzanda zegoen erdi-hurrena, ez da beste egokerarik Goizuetan ezagutu, ezta "sillas parideras" direlakoak ere. Ez zegoen etxean erditzeko gela berezirik, ohean zegoen etzanda, erdi-hurrena.

* Campus universitario. 31009 Pamplona.

Haurrari, sortzean, txilberraren lokarria mozten zion medikuak, lehendik prestatutako lokarriaz txilborra lotuz, eta, jaioberria oinetatik zuelarik, sorbaldan kolpe txiki batzu ematen zizkion negarra eragiteko. Negarra heldu eta berehala emaginaren eskuetan ipintzen zuen eta bukatutzat ematen zuen bere lana haurra eta ama ongi ikusten bazituen.

Jaioberria osorik garbitzen zuen emaginak, ur epel eta xaboia erabiliz. Gero oihal goxo batean biltzen zuen lehortzeko. Txilberraren zauria konpondu eta gero troxak ipintzen zizkion sabela estaliz. Talko-hautsez bete ondoren, alkondara fin-fina ipintzen zitzaion haurrari soinean, harizko zapia ipurdi aldean, *xatarrak* gero, eta eguraldiaren arabera, beste jantzi lodiagoren bat eta txano fina buruan hotza bazen. Hala prestatuta amarengana eramaten zuen haurra emaginak, gero seaskan ipiniz, amaren ohe ondoan.

Lehenengo egunean haurrak ez zuen amaren bularretatik deusik hartzen eta goseak hilda bazen ur pixkat egosten zen eta azukreakin nahasia ematen zitzaion. Biharamunean amaren ditiari eusten zion. Esne ugari bazuen amak hori izaten zen jateko bakarra, baina amaren esnea aski ez bazen hauts-esnea ematen zitzaion, botikan eresia, eta lehenagoko denboretan behi-esnea, erdizkan urez nahasia, gero eta esne gehiago ipiniz, esne hutsa izan arte. Irinak etorriko dira gero, papilla egiteko. Goizuetan, lehen urteko bazka prestatzeko, gari-ogia nahiago zuten artoarena baino. Gero denetarik ematen zitzaion haurrari.

Zer esanik ez, gauzak guztiz aldatuak dira oraingo Goizuetan eta nonahi.

175. *Nori eta noren bidez jakinarazten zuten haurraren jaiotza? Bazegoen horretarako ohiturak onartutako arau edo usadiorik?*

Erdi-hurrenaren etxean familiako adineko emakumeak biltzen ziren berriaren zain eta haieixe ematen zitzaien lehenik berria. Erditzea normala bazen, ez zuten bere lana uzten etxeko gizonek; mediku, emagin eta etxeko emakumeen eskuetan arazoa konfiantza osoan utziz. Iluntzean, lanetik etortzean hartzen zuten jaiotzearen berri. Etxeko neska-mutikoak eskolan eta beren jokuetan ibiltzen ziren eta etxeratzean jakiten zuten berria. Premiazkoa zen, berriz, udalera jo, jaioberriaren izena erregistroan sartzeko, eta handik lasterka apezarengana, bataioa presta zezan biharamuneko. Ordu horretako atautxi-amautxi izena aukeratuta zuten, noski, eta gurasoek jakinarazita.

176. *Jaiotzearen beherean gainean ala beste toki bereziren batean ipintzen zuten? Zergatik? Haurra nork hartu behar zuen?*

Ez dute inoiz ikusi, ezta aditu ere gure informatzaileek jaioberria lurtean jartzen zenik. Medikuen eskuetatik emaginaren eskuetara iragaten zen haurra eta horrengan-

dik amarengana. Gero aitak hartzen zuen etxean baze goen, normala ez zena. Ondoren erdi berriaren amak izango zuen, gero ahizpek eta koinatuek, bakoitzak bere familiaren antza haurrengan bilatuz.

177. *Zeintzuk gauza egiten zizkieten jaiotze berriari? Tankera bereziren bat emateko burua loturaren batez estutzen zioten? Zein tankera? Sudurra luzatu edo mozteko, egiten zioten tenk bertatik?*

Erditzearen zailtasuna dela eta maiz haurrak buru ardatzekoa ateratzen zuen. Hori konpontzeko troxa leun batez biltzen zitzaion burua, batez ere konkorra bazen. Horregatik mutikoaren buruak oso forma ona hartzen zuen handik egun gutxitara. Sudur formari berriz, ez zitzaion kargu berezirik egiten, eta norbera Jainkoak eman zion sudurrari eutsita zebilen betirako. Hori zen ohitura.

Faxa gogorraren erabilera, berriz, guztiz maizkoa zen. Larruaren gainean troxa leunak ipinita, gero beste faxa zabalago eta gogorrago bat erabiltzen zen, gure informatzaileen ustez, gorputzaren liraintasuna lortzeko.

Hutsen bat agertzen bazen gorputzean beti bilatzen zitzaion konponketa. Oso arruntak ziren, adibidez, txilborreko sabel txikiak edo herniak eta hori konpontzeko zilarrezko duro bat ondo garbituta ipintzen zitzaion haurrari troxaren azpian. Horrekin aski zuten akats hori desagertzea zedin.

178. *Bataiatu gabe hildako haurrak, non lurperatzen zituzten? Nola?*

Aintzinako denboretan elizaren barrenean lurperatzen ziren hilak. Gero elizaren aurreko lurtean zegoen zimetarioan. Elizako paretan, lurraren beraren mailan, zulo handi bat ezagutu dute adineko guztiek. Zulo horretan lurperatzen omen ziren bataiatzeke hildako haurrak, baita haur galduak ere. Zuloa ez zen lur sakratua. Hilerria oraingo lekura eramanean zutenean hor geratu zen zuloa neska-mutikoan izurako. Jokoetan zulo horretan sartzen bazen pilota begirune eta izu handiz ateratzen zuten handik. Zuloa bete egin zuten eta horrekin batera desagertu egin zen linboa.

Oraingo hilerrian bazen puxka txiki bat, jendearen ustez sakratua ez zena, linbo izenekoa. Han lurperatzen ziren bataiatu gabeko haurrak eta galduak ere bai. Hilik jaiotzen zirenak kutxa batean sartu eta hilerriko depositeira eramaten ziren, gero lurperatzeko. Haur galduak edozein kutxatan sartzen ziren, zapata kutxa batean aproposagorik ez bazen, eta zuzenki ehortzen ziren esandako puxka horretan. Kasu guztietan, badaezpada ere, bataioa egiten zitzaion apezak erakutsiko formulaz: *Nik baitatzen zaitut Jainkoaren izenean. Aitaren ta Semearen ta Espiritu Santuaren izenean. Amen.*

179. *Zer egiten zuten zilborrestearekin? Eta haurtzorrorrekin? Bataiatu aurretik haurrari ezer txarrik gertatu ez ziezaien, zeintzuk neurri hartzen ziran?*

Zilhestea moztu eta haurraren txilborra lotu eta bildu ondoren, erabilitako zapi edo gasekin batera bota egiten

zen arreta handirik gabe. Plazenta bildu eta ehortzen zen etxeko hegalean, baratzean.

Sendo ikusten bazen haurrak ez zuen neurri berezirik behar, baina ahuldu eta hilzorian ikusten bazen etxeko batek bataioa ematen zion.

Aintzinean Ez zen bataioa inondik ere geroratzen. Jaiotzearen biharamunean egin behar derrigorrez eta horrekin bataiorik gabe hiltzeko arriskua txikitu egiten zen.

Bataiatu gabeko haurrari ez zitzaion mosurik ematen, pekatuaren bidez ekarria zelako, pertsona ez zelako bataiatu arte. Erregu txarren beldur ziren beti gurasoak. Neska-mutiko ijitoei eta jende txarrendik alde egitea erakusten zieten; bataiatu gabekoekin balio handiago zuen neurri horrek.

Aldi haietan askotan gertatzen zen haurrak bere onetik ateratzea arrazoi jakinik gabe, eta haurraren negarrak gurasoak bere onetik ateratzen zituela. Beste konponbiderik aurrean ikusten ez zutela eta apezarengana jotzen zuten ebanjelio liburuaren bila. Ebanjelio liburua haurraren gainean ipini eta berehala bere onera bihurtzen ohi zen haurra. Halako ustea sendoa zen etxe guztietan. Apezek onartzen zuten gaitzik egin ezin zuelako. Denpora joan ahala apezak ohitura horren kontra agertzen hasi ziren eta etsai sutsu bihurtzen. D. Eugenio Etxenik, mende erdiko urteetan, ez zion jendeari ebanjelioa uzten eta beste irtenbide aproposago baten bila bidaltzen zuen jendea.

Noizean behin haurrari baratzuri pikor bat sakutoan sartuta ipintzen zitzaion lepotik zintzillikan noizean behin, baina gure informatzaileek ez dakite kutun edo herriko medizina bezala ote zen, oso erabilia baitzen baratzuria herriko sendagintzan.

180. Bataioa noiz eta non izaten zen?

Jaiotzearen biharamunean egiten zen beti bataioa. Haurra jaiotzean berehala apezari berria eramaten zitzaion, bataioa presta zezan biharamuneko. Herriko eliz nagusian egiten zen bataioa. Ez zegoen arazoa lutzetik, esan dugunez.

Pazko-mezatan ur bedeinkatu ontxi txiki bat eramaten zen etxe guztietara. Ba zen beti ur bedeinkatua etxeetan. Ur horrekin egiten zen arrisku bataioa, arriskurik ikusten ez bazen bataiorik ez baitzen egiten. Gurasoek egiten zuten, amek gehienetan. Eta elizatik ekarritako ur bedeinkatutik, edalontzi txiki batez bota egiten zen pixkat, horrekin batera gurutzea eginez haurraren kopetaren gainean, esandako formula erabiliz.

181. Bataioan nortzuek parte hartzen zuten? Nork eramaten zuen haurra elizara?

Elizaratzean besoetan eramaten zuen haurra etxekoren batek (amonak gehienetan). Eta haren ondoan atautxi-amautxiak. Ba zuen emaginak ere haurra besoetan eramateko eskubide osoa, etxekoek onartzen bazuten. Elizaren aldetik apeza eta bere mutiko laguntzailea baka-

riki. Baina haurraren etxetik jende pila bat zetorkeen. Inoiz huts egiten ez zutenak herriko neska-mutikoak, badakigu zeren zain.

182. Zenbat aitabitxi eta amabitxi joaten ziren zeremoniarara? Nork eusten dio haurrari? Amabitxia eta aitabitxia izendatzeko, zein arauri jarraitzen zioten? Nola eskatzen zioten amabitxia edo aitabitxiari ardura hori hartzeko? Zeintzuk izen erabiltzen zituzten aitabitxia eta amabitxiari deitzeko?

Amautxi eta atautxia ikusi dituzte gure informatzaileek, bi pertsona beti, gizonezko eta emakumezkoa, hori izan da ohitura, gogoratzen dutenetik. Haurra lehendabizikoan amautxiaren besoetan egoten zen eta gero atautxiarenetan.

Gehienetan atautxi-amautxiaren aukeratzea halakoa da: lehen haurrarentzat aiton-amonak, bat aitaren aldetik eta bestea amaren aldetik. Bigarren haurrarentzat bi etxeetako ahaide zaharrenak, zera, osaba eta izekoa. Hirugarrenarentzat zahartasun lerroan etortzen zirenak, eta hala, ahal bazen, azken haurra bataiatu arte. Beti handia zenez familia problemarik ez. Hori zen ohiturako araua, baina noizean behin adiskidetasuna dela eta, etxeko ez zenari gonbita egin ahal zitzaion atautxi edo amautxi izateko.

Lehen haurraren bataioan ez zen zertan pentsatzerik. Besteenean zahartasun lerroak aurkeztu zutenari, horri esaten zitzaion nahi ote zuen atautxi edo amautxi izan. Onartzen bazuen ez zen beste beharrik, Ezetz erantzuten bazuen hurrengora jeisten zen lerroan.

Ba ziren atautxi eta amautxi gehien erabilitako izenak, baina Goizuetako jendeek ba zekizkiten beste izenak: *aitapunta* eta *amapunta* (beste euskalkietako *amaponte* eta *aitaponte*, zera, *mater ex fonte* eta *pater ex fonte*).

Atautxi-amautxi ongi aukeratuak ziren beti. Goizuetako erlijio gaietan ez zen inondik inora menturarik sartzen.

182 bis. Nork hautatzen zuen haurraren izena? Bazegoen araurik izena aukeratzeko?

Haurraren izena atautxi-amautxiak aukeratzen zuten, baina ez zuten aukeratzean problema handirik. Aintzinako ohitura eguneko santuaren izena aukeratzea zen. Bataioan izen hori apezak jakinarazten zuen, baina bazen herrietan egun guztietako santuak, alderdiaren arabera, ezagutzen zituena, eta jende arruntak izen gehienak ezagutzen zituen. Almanakak ere laguntza ematen zuen. Eguneko santuarena aukeratzen ez zenean, ahaide hil batena onartzen zen. Haurraren izena aukeratua eta gurasoei jakinarazten zieten, haurra udaleko erregistroan bere izenarekin.

Atautxi-amautxi eta haurraren arteko harremanak beti-koak izango dira, lurreko eta goiko ondasunak hartuz haurrak haiengandik. Ez dira gauza handirik lurreko ondasunak, baina urtebetetzeetan, lehen jaunartzean eta ezkontzan ahalik eta opari oparoenak hartzen ohi zituzten atautxi-amautxiarengandik.

Bataio harrira eraman dutenei *atautxi* eta *amautxi* esango die haurrak. *Atautxi-amautxiak*, berriz, *haurrari haur besoetako*.

183. *Zeintzuk jantzi eramaten zituen haurrak bataiorako? Nola jantzen zuten euren burua zeremoniara zihoztenak?*

Bataiora guztiz dotore joaten zen haurra. Ipurdia bilduz harizko zapi bat. Gero alkondara fin-fina, botoi txikiez hornitua. Goiko botoiak lotu gabe uzten ohi ziren apezaren lana errazago egiteko asmoz. Eguraldiaren arabera beste alkondara lodiago bat eraman zezakeen, edota artilezko txamarratxo bat. Eta guztiaren gainean bataioko faldoia, ahalik eta dotoreena, oihal ederrekoa beti, zintez eta puntilez hornitua eta burutik oinetarainokoa izaten ohi zen gainera. Gainerako arropak berezkoak izaten ziren, bataioko faldoia, berriz, etxean gorde eta faldoi berberaz bataiatzen ohi ziren familia osoaren haurrak. Oinetan puntuzko oinetako ederrak.

184. *Otorduren bat izaten zen bataioa dela eta? Non? Nortzuek parte hartzen zuten? Zer egiten zuten jateko?*

Bataio ondoan otordutxo bat prestatzen zen. Lehenagoko denboretan bataiatu berriaren etxean, baina gero herriko tabernetan, baserritarren bidaia luzeegi ez egiteko. Bai otordua, bai apezarentzako oparixkoa, bai bataioaren saria, bai herriko neska-mutikoei bota egiten zitzaiena *atautxi-amautxiek* ordaintzen zituzten. Otorduan *atautxi-amautxiez* gainera, *etxeko guztiak* eta bataiora etortzen ziren *guztiak hartzen zuten parte*. Bataioa eskola amaierako orduan egiten zen herriko neska-mutikoen parte har zezaten. Eguerdian egiten zen gehienetan, hamabietan, eta bataio ondoko bazkarian salda ona, haragi egosia eta arroz-esnekin prestatzen ohi ziren lehenagoko denboretan. Gero, tabernetan egiten zenean, denetarik jan ahal izaten zen. Arratsaldean egiten bazen otordua, tortilla eta gazta izaten ziren mahi gainean agertzen zirenak. Ardoa eta sagardoa ere bai, zer esanik ez.

Elizatik ateratzean *atautxi-amautxiak* eta beren laguntzaileek herriko neska-mutikoei *diru-xehe ugari*, *gozoki* eta *konfite ugariago* bota egiten zizkieten. Gure informatzaileen ustez hori da betidanik bota dena, ez dute intxaurrik edo urrik botatzen ikusi. Eskolako ikasle guztiak biltzen ziren, *guztiak lehia bizian*, norberak "honera, honera bota" oihuka eta oihuka, eta horrela elizatik *etxeraino* edo *tabernaraino*. Ez zen berriz lotsagabekeriarik kantatzen bataiokoek *gutxi botatzen bazuten*.

185. *Egiten zioten oparirik amari eta haurrari? Nortzuek egiten zizkieten opariak? Zer izaten zen oparia eta nola deitzen zitzaien opari horiei?*

Haurra izan zuten *etxera bixitak* egiten ziren ama eta haurra ikusteko. Zerbait, asko ala gutxi eraman behar

zuten joaten ziren *guztiak*: opila, ardo ona eta gehienez oilo bat, *erdiberriari salda ona huts egin ez ziezaion*. Etortzen ziren, nola ez, *familiakoak baina etor zitezkeen aldameneko guztiak*, *baserritakoak batez ere*, *Guztiak ahal zuten oparia eramanez*. Opariei *bixita* esaten zitzaien.

Apaizarentzat bazen ere oiltogian oilasko pare bat bataioaren biharamunean eramateko. Baita monagilloak ere bere oparia zuen, ogerleko bat eta gehiago azken boladetan. Esana dugu: *atautxi-amautxiak ordaindua dena*.

186. *Noiz joaten zen ama elizara post partum bedeinkapena hartzera? Nola deitzen zioten egintza horri? Amak zer aurkezten zuen bertan? Ordurarte amak zer egin behar zuen eta zer ezin zuen egin?*

Haurra izan ondoren, hamabosgarren egunetik aurrera, elizan agertzen zen ama. Egun horretara arte ez zen teilatupetik ateratzen, ezta mezatara ere. Pekatuan zegoen eta horregatik ez zuen bere *etxetik atera behar* elizaren *bedeinkazioa hartu arte*. *Elizan sartzea* zen. Eguneko edozein ordutan egiten zen, apezari ondo zegokion unean. Ongi jantzirik, eskuetan bela bat eramanez, elizaren aurrean agertzen zen ama. Aldare aurrean zegoenean bela piztu eta elizaren *bedeinkazioa hartzen zuen*. Belak elizarako geratu behar ziren.

Esan dugunez, *bedeinkazioa hartu arte teilatupetik ez zuen atera behar*, baina etxean zerbait *premiatzko* bazen, derrigorrez atera behar, eta agintea ez hausteko emakumea ateratzen zen buruan teila bat eskuz eutsita eramanez.

Haurraren lehen urteetan gaiso bazen maiz, osasuneko ez bazen, santutegi famatuaren tituludunari eskeintzen zitzaion haurra. Goizuetan oso hedatua zen Urnietako Ama Birjina Arriozokoari (sic) haurra eskeintzea.

187. *Ama sendatutakoan, senide eta auzokoei egiten zioten janaldi berezirik? Nola deitzen zioten janaldi horri?*

Haurra jaio eta, hurrengo zortzi egunetan sartzen zen jaian, *erdiberriaren etxean biltzen zen familia osoa*, ama eta aitaren *aldekoak bazkari bat egiteko*. Bazkarian ahal zena ematen zen, baina beti bazkari berezia zen. Bazkari honen izena *atxolarra* zen.

188. *Aitabitxi-ama bitxiak zer oparitzen zioten besoetakoari? Noiz?*

Ahal zen arabera *atautxi-amautxiak opariren bat eskeintzen zioten bataiatu berriari*: dirua, domiña urrezkoa edo zilarrezkoa bere katearekin, arropa etab. Hori bataioaren gastu osoa ordaintzez gain.

Goizuetan, mende honetan ez dute ogi bereziak oparitzeko ohiturarik ezagutu bataioaren inguruan.

Teoria mailan bederen, *atautxi-amautxiak arreta berezia hartzen zuten besoetako semearekin*, Gurasoek huts

egiten bazuten atautxi-amautxiaren pean geratu behar zen haurra, bere haziketa haien eginbeharra zen.

189. *Haurtzaroa. Jaioteguna eta izeneguna ospatzen ziren? Egiten zuten oparirik horren aitzakiaz?*

Asko ala gutxi, gutxi gehienetan, ospatzen zen etxean urtebetetzea. Horretako bizkotxo, gailetak, gozopilak... zer edo zer prestatzen zen ospakizun apala egiteko asmoz. Norbait etor liteke urtebetetzekoari zorionak emateko, atautxi edo amautxia gutxienez, eta haiei zerbait berezi eman behar. Oparirik ez zen lehenagoko denboretan, baina gero, leku guztietan bezala ageri ziren opariak eta handik aurrera gero eta garestiagoak izaten ohi dira. Santuaren izeneko jala ez zen ospatzen, eliza besta ez bazen.

190. *Zein itxurakoa eta zerez egindakoa zen sehaska? Nola eragiten zioten?*

Azken boladetan materia eta forma guztietako sehaskak ikusten dira herrian, baina lehenagoko denboretan egurrezkoak ziren, etxeko gizonek egina batzuetan eta derrigorrez umil eta *lantzaka*. Buruko oholek, goiko eta beheko aldetikan, borobiltasuna zuten. Oinetan borobiltasuna beheko aldean bakarrik. Ohatzea ohol arruntek egiten zuten. Bi aldetara errejillak, karroarenak bezala, Dena ahalik eta hoberen paratua.

Sehaskaren barrenean zera ipintzen zen: lastaira lehendabizikoan. Lastaira egiteko lixiban saku fin bat ego-si eta horrela fin, txuri eta guri geratzen zen. Gero zurikinaz bete eta josli. Sehaskako zolaren gainean zetorren. Koltxola gero, ardi ilez egina, leun eta guri ere ahal zen moduan. Horren gainean maindire bat, gero beste bat eta manta edo koltxila, koltxila ardi ilez egina ere.

Sehaskaren buru eta oinak beheko aldetikan borobiltasun pixkat zuten oso erraza zen kulunkatzea. Eskuz egiten zen batzuetan baina oinez maizago, beste edozein lanetan baitzeunden gehienetan eskuak.

191. *Nola paseatzen zuten haurra?*

Etxetik gutxi ateratzen zen haurra. Eguraldiaren arabera, eguraldia onarekin ikus zitezkeen amak haurra ondoan izanez, soro eta leku berezietan. Paseioan gutxiago, etxean beti lana sobera zutelako. Igandean haurra eramaten zuten familiaren etxe batetara, besoetan zer esanik ez, orduko denboretan ez zen ez haur gurditorik ez kapazotxorik. Ahizparik edo arreba adin gehiagokoa bazuen haurrak, hark ateratzen zuen, baina besoetan beti, mendeko erdi aldera agertu ziren haur gurditorik ez gertatzen.

192. *Zer egiten zieten hurrei hortzetako mina kentzeko, hitz egiten edo oinez ibiltzen ikas zezaten?*

Urduri, loak ezin hartu, negar bizian ikusten zenean haurrari txupetea eskeintzen zitzaion. Batzuetan ur ezti-

tuan bustia. Azukrea ez zen oraingoa bezalakoa eta haurrari ezin eman txupetea azukrean bertan sartua. Ur ezti-tua erabili behar. Gomazko txupetea baino lehen oihalezkoa erabili zen. Ohial zatitxo bat lokarri bati ongi eutsita eta ur eztituan bustia, zera zen haurrari eskeintzen zitzaiona azken irtenbide bezala, zeren normalean ez zitzaion deusik ematen, herriko medikuak kasu hauetan agintzen zuena izn ezik.

Hortz irteerari laguntza emateko ezti arrosatua erabiltzen zen. Eztiaren erabilera betikoa izan omen da, botiketan erosi baino lehen, gure informatzaileek entzunda dute ezti fin-fina erabiltzen zela. Lehenago denboretan, base-rietan, ezirik hoberena, eztiaren bihotza, ezirik finena haurraren hortz irteerari laguntzeko erabili ohi da. Ezti horretan oihaleko txupetea busti eta hortz obiak igurtzi, goikoak eta behekoak. Lasaitasuna hartzeaz gain haurrak horrekin oso laguntza ona hartzen zuen hortzak ateratzeko. Gomazko txupeteak ageri eta handik hona ez da besterik ikusi.

Haurrari ibiltzen erakusteko, lehen urratsei laguntzeko, haurrari faxa gogor bat ipintzen zitzaion gerrian. Lokarri sendoan bukatzen zen faxa hori. Handik hartua hasten zen ibiltzen haurra. Haurra zeramanak guztiz erne ibili behar zuen haurra eror ez zedin. Gero taka-takak direlakoak agertu ziren, baina jendearen ustez lehenagoko metodoa hobea zen, haurrek goizago ikasten baitzuten. Haurra ibiltzen hasia zenean edozein aulkiz baliatu ohi zen, jokatzen zuen bitartean.

Bazen haurrarekin mintzatzeko modu berezi bat, hitz, esaldi eta tonu bereziak. "Atta" goiz aditzen zitzaion. "Ama" gero. Hala, pixkanaka pixkanaka haurrari erakusten zioten mintzatzeko, Euskaldunak izanik, euskaraz gure informatzaileen etxeetan. Herriko familia gehienak euskaldunak ziren.

Haurrari beti "hika" erakusten zitzaion. Gero, hazten zenean "zuka" eta "beronika".

Esana dugu, haurren osasunaren bila, joaten zela eliza famatuetara. Ohizkoa zen Urrietako Ama Arriozokoari (errosariokoari) haurra eskeintzea.

193. *Zer egiten zuten haurrari jausitako haginekin?*

Etxe batzuetan eroritako lehen hortzak gordetzen ziren aldi batean oroigarri bezala. Gero galtzen ziren, noski. Norbaitek eraztun batean ipini zuen haurrak botatako lehen hortza. Baina normalago zena, hortz horiek galtzea besterik gabe.

Orain ba dute haurrek horretan ere aitzakia dirua edo nahi dutena eskatzeko. "Ratoncito Perez" delako kontua Goizuetara heldu da azken boladetan.

Bularreko esnea ematea zenbait hilabetez luzatzen zen. Esnea ugari igaten bazen eta horrekin bakarrik haurra sendo eta bizkor ikusten bazen, pobretasuna dela eta esne ematea bi urtez luzatu zen behin baino gehiagotan. Bada herrian esne hutsez aurrera atera dena. Baina maizago egiten zena esne emateari hala edo holako laguntza

ematea zen. Esnea ugariegi eta kalitatezkoa ez zenean batez ere. Behi-esnea urarekin nahasia ematen zitzaion haurrari, erdizka lehendabizikoan, gero eta esne gehiago ipiniz. Etxekoek jaten zutenetik haurrari ematen zitzaion pixkat ere, denetarik jaten ikas zezan. Baina bularra ematea ez zen guztiz uzten gehienetan. Ama bitartean ahal zuen moduan elikatzen zen, baina goizuetarrek, euskal herriko guztiek bezala, ugaritasuna baino miseria ezagutu dute maizago.

194. *Zenbat urterekin hasten zen haurra eskolara joaten? Lehen Jaunartzea noiz egiten zuen? Etxean egiten zuten ospakizunik hori zela eta?*

Bost urtekin joaten zen lehenago eskolara kaleko haurra. Baserrietakoak adin berberarekin joaten ziren ere, baina baserriko lana eta herritik urruntasuna zirela eta baserrietako neska mutikoak kalekoak baino askoz gutxiago etortzen ziren eskolara.

Lehenago denboretan maistra eta maisu bat besterik ez zen, lehena neskontzat eta bigarrena mutikoentzako. Gero, mende erdian, haurrentzako eskola ireki zen eta ordutik aurrera hiru edo lau urtekin sartzen ziren mutikoak eskolan. Guztiz berezita zeunden neska eta mutikoen eskolak. Eskola bakoitza gela handi bat zen eta horretan eskolako maila bakoitzak bere kokaera zuen. Goizuetan ez zen ez fraiderik, ez mojarik eta eskola bakarria estatuarrena zen.

Elizara, lehen jaunartzea ikasten denean hasten da joaten dira. Lehen komunioa orain zortzi-bederatzi urtekin egiten du haurrak, hirugarren mailan. Lehenago goiz egiten zen, sei edo zazpi urtekin gehienetan.

Lehenago denboretan lehen jaunartzearen egunean ospakizun gutxi, baina gero eta gehiago egiten da, baita ezkontzan bezalako gastua egiteko heinean. Elizako besta bukatu ondoren bazkari bat prestatzen zen: salda ona, garbantzoak, oilaskoa edo arkumea, arropa esnekin, ardoa, sagardoa etab. Bazkari horretan atautxi-amautxiak zeunden eta haurrak zer edo zer hartuko zuen haiengandik, aunitz ala gutxi: errosario bat, mezatako libururen bat, arropa, dirua. Neska eta mutikoak ahalik eta dotoreen ageriko ziren elizan, baina orain baino askoz gutxiago. Eliza ez zen gehiegi apaintzen ere. Gero bai, argiz eta lorez.

Komunioko prestaketa oso berezia zen: ikasi behar ziren otoitz nagusiak eta dotrina pixkat. Gai hauetan haurrak hornitzeko bazen andre zahar bat. Mai Miel (Mari Miguel) izeneko bat urte askotan izan zen arduradun hori. Kantuz ikasten zen dena, erritmo eta kadentziaz, tonu bereberean dena, behar zena ikasi arte. Ez zen ez eskolan, ez elizan, ezta elizako etxean ere ikasten, herriko etxe batean baizik. Azken prestaketa gurasoek eta apezak egiten zuten.

Noiz behinka *epizkopua* etortzen zen ere konfirmazioa egitera. Konfirmatu gabe zeunden neska eta mutiko koskorrek konfirmatzera. Goizean egiten zen eta gero bazkari berezi bat prestatzen zen, herriko apezak ordaindua,

konfirmazioa hartu zuten neska mutikoen gurasoen laguntzaz. Lehenago denboretan apaizaren etxean egiten zen eta bertan konfirmatuek hartzen zuten parte, norberak berea ordainduz. Gero ez, jende gutxiago biltzen zen epizkopuarekin. Konfirmaziokoek bazuten atautxi eta amautxia eta haien jakinarazten ziren epizkopuak haienpean hartzen zuten egin beharra. Gure informatzaileetako bat, Benita Etxeberria, amautxia zen D. Enrique Delgado epizkopuaren pean.

195. *Hamabi urte baino lehen haurrek zeintzuk lan egiten zituzten? Zertan jolasten ziren?*

Kalean ez zuten neska mutikoek lan gehiegirik egiten: errekaduak, erosketa txikiak, uzta denboretako lan xeheak eta abar, baina baserrietan askoz gehiago egiten zuten. Lehen lehengo denboretan baserrietako neska mutikoak gutxi agertzen ziren eskolan, baserrian lan franko egiten zutelako, baina gero, eskolara maizago agertzen zirenean, eskolara baino lehen eta eskola ondoren lan franko egiten zuten eta ez nolana hiko lana, lan gogorak alorretan, haziendarekin, etxean eta abar.

Jokuetako taldeetan, lehen urteetan guztiak, neska mutikoak nahasirik ibiltzen ziren, gero pixkanaka neska eta mutikoen taldeak bereziz joanez. Hamabost-hamasei urtetara arte ez ziren berriz bilduko gazteen dantza eta jokuetan.

196. *Gaztaroa: Gaztesailik edo ezkongabeen elkarerik bazegoen? Zenbat urte zituztela sartzen ziren gazteak elkargo horietan? Zeintzuk ziren elkargo horien helburuak?*

Ez da horrelakorik ezagutu Goizuetan. *Iñaute* egunean herria auzoetan banatzen da erronda egiteko, gazteek talde bakoitzak beren alderdian errondia eginez, gero herriko gazte guztiak taberna bereberean biltzen direlarik. Beste zatiketarik ez da ematen. Ba da Goizuetan "Peña humore ona" deritzan taldea, baina edozein adinetako jendearentzat da. Bere lehen urteetan gizonezkoentzat zen bakarrikan baina orain emakumezkoak sartzen dira ere eskubide osoz. Ba du bere etxea, Udalak emanda. Era askotako ekintzak egiten dira eta otorduak eta kafetegiko zerbitzuak ematen ditu ere. Oso elkarte eraginkorra guztien ustez. Sartu nahi izanez gero sarrera ordaindu beharra dago.

Hiru erlijio talde ezagutu dituzte gure informatzaileek: frantziskotarrena, hirugarren ordenekoa; Jesusen Bihotzarena eta Mariaren Alabak, azken hau neska ezkongabeentzako delarik.

Tallatzeko egunean, soldadutzara joateko deitutako mutilak, Arano, Artikutza eta Goizuetakoak, udaletxean biltzen ziren. Gero elkarrekin jai eder bat egiten zuten herriko tabernetan otordu handi bat prestatuz.

Lehenago denboretan ez zuten harreman berezirik kinta berekoek, ezta orain ere, baina urtez urte kinta berekoen eguna ospatzeko ohitura sendotzen ari da. Batzuetan kinta bat baino gehiago biltzen da.

197. *Zenbat urterekin hasten ziren neska-mutilak elkarrekin dantzatzen? Zeintzuk dantza egiten zituzten? Non dantzatzen zuten? Herriko plazan? Toki itxiren batean? Orain berrogeita hamar urte, zeintzuk dantza zeuden modan? Eta gaur egun? Lehen zeintzuk musika-tresna erabiltzen zituzten? Eta orain?*

Hamabost-hamasei urtekin hasten ziren dantzan neska mutilak bikoteka. Dantza soltea zen, zer esanik ez, eta ez zen besterik. Herriko plazan egiten zen udako igande eta jai egunetan. Ba zen zine-areto bat, Tifanis izenekoa, non egiten baitzen dantza lotua neguan, baina gero utzi zen. Gaur egunean Goizuetan Donostia edo Iruinean entzuten diren soinu eta erritmo berberak entzun daitezke, baina lehenago denboretan, irrati edo telebistarik ez zenez hemengo musika bakarrik agertzen zen dantzetan. Lehenagoko jaietara zetozen musikariak, dultzaineroak, akordionistak eta txistulariak ziren. Dultzaina jotzen zutenak kanpokoak ziren beti, batzuetan leku urrunekoak. Akordiona jotzen zutenak bertakoak ziren, herrikoak ez baziren inguruko herrikoak. Txistularia herrikoa beti.

Udaran igandero egiten zen dantza iluntzera arte. Ameskila entzun eta berehala isildu egiten zen musika eta jendeak gutxira gutxira alde egiten zuen dantza lekutik. Ameskila "angelus"-a zen "keda" esaten zitzaion ere. Arratsaldeko bederatzietan jotzen zuen udaran.

199. *Ezkongalak, ezkontza eta ezteia: Gizon edo emakume baten baietza jasotzeko edo harremanak apurtzeko, zeintzuk baliabide hautatzen zituzten?*

Norberak berezko bideak erabiltzen zituen batzuetan: ona izatea, ongi agertzea, dotore janztea, ongi mintzatea, aberats iruditzea, neskenganako sarrera ona izatea... guztiak bide berezkoak ziren. Ba zen Goizuetan bide horiek erabiltzeko garaia: udaran zehar igandero egiten zen dantzaldia. Han hitz erditxo bat, xurkeria bat zer edo zer neska batengana nahia erakusteko. Hori teoria mailan bederen, zeren Goizuetako kaleko etxeetan eta baserrietan jende jator, on, euskaldun, aberats anitz da ezkondu gabe.

Elkarrengana berezko bidez neska mutilak hurbiltzen ziren bitartean, ezkutuan bereak egiten zituzten gurasoek, etxaldekoiari buruzko arazoa bazen batez ere. Agian ba zuten haiek neska bat bistan jota, kalkuloak eginak eta behar bazen hitza emana. Neska horrekin etxaldekoa ezkondu arte ez zuten atseden izango beren makinazioek.

Elkarren arteko harremanak hausteko arrazoiaren artean jelsiaz egotea, elkarrekin aspertzea, gurasoen makinazioz ikutuak edo elkarren arteko akordioa izaten ohi dira.

200. *Herriko neska eta mutil gazteen izenak bilduz, egiten zen herrian urteroko jokorik bikoteak sortzeko? Noiz egiten ziren joko horiek?*

Gure informatzaileen ustez Goizuetan ez da halakorik ezagutu.

201. *Ezkongabetasuna. Zergatik eta zenbat sexuka (estatistikak). Neskazaharren bizimodua. Egiten zieten txantxarrik mutilzaharrei? Ezinbestekoa zen ezkondu eta mundura seme-alabak ekartzea?*

Goizuetan ezkongabe anitz dago, baserrietan batez ere. Jende on eta jatorra ezkondu gabe geratu da nahiz eta emakumearen premia handia izan kasu gehienetan. Bere garaian harreman gehiegi ez izategatik izango zela uste dute. Ba da neska eta mutilzahar ugari.

Oraingo ezkongabeek etxetik kanpo lan egiten badute eta sari edo pentsio on bat badute ez dute problema berezirik nonahi eta nolanahi bizi izateko, baina bestelako egoera negargarria zen askotan: etxean bizimodurik ez eta emakume bat etxeko lan guztiak egiteko gauza bazen, beste emakumea sobera zegoen. Ez zen berdin mutilzaharrekin gertatzen, alor eta hazienda lanetan beti bere laguntza eman baitzezaketen.

Bai, nolanahi ere, jendeak burla egiten zien neska eta mutilzaharrei, zenbat eta pobregoa orduan eta burla gehiago, zer esanik ez. Ustea zen familia eratzea irtenbide bakarra zela, ez zela besterik erlijiotik at. Hori bai, erlijioarengatik ezkongabe geratzea zen beti eta ba dira Goizuetan moja, fraide eta apez multzotxo bat.

202. *Mutil gazteek egiten zieten neskei bisitaldirik gauzez? Holakoetan, esaten zen formula berezirik edo abesti berezirik kantatzen zuten? Asteko zein egunetan izaten ziren bisita horiek?*

Gaur egun ezkongaei maizago ikusten dute elkar kale berberako edo baserri urrunekoak izan, baina lehenago denboretan ez zen hala gertatzen. Ez zen astean bestea ikusteko egun berezirik. Ba liteke lanean edo bidean bestea topatzea baina proposatu gabe. Igandeetan eta jai egunetan ikusten zuten elkar ezkongaei, aratsaldean dantza lekura joan baino lehen, dantza garaian edo dantzatik etxera joatean. Besterik ez. Gau abeslaririk ez da mende honetan ezagutu Goizuetan. Ba zen, bai, gau berezi bat, San Juan gaba. Mutilek maitemindurik zeundela beren maiteei lizar adar handi bat ipintzen zien leihuan. Hori zen mutila beren maitearen leihora hurbiltzen zen gau bakarra. Ez zen, ordea, begikunezko adarrik, beste lekuetan bezala, eta agertzen ziren adar guztiak maitasunezkoak ziren beti.

Ba dakite gure informatzaileek Goizuetako neska mutilak zeruko aingerutxoak ez zirela. Zintzotasuna norma bazen, beti izan da salbuespenen bat edo beste eta denetarik aditu dute.

203. *Nork ematen zien hasiera harremanei? Zerk adierazten zuen bikotearen baietza? Zeintzuk ziren aitormena egiteko arauak? Hitzez, idatziz, gauzaren bat emanez?*

Bere senargaiarekin harremanetan hasi den neska bat edo beste ezagutu da Goizuetan, baina ez zen egunero-

ko gauza, eta emakumeengan soberazko balentria ez zen onartzen. Gizonezkoa zen harremanak hasi behar zituen. Borondatea ezagutarazteko edozein bide erabili da, baita gutuntxo bat bidaltzea, lehen topaketako berotasunetik ihes egiteko. Baina gehienetan hitzez egiten da lehen maitea azaltzeko. Gero, azalketa onartzen zenean opariak etorten ziren. Harreman horri *kortejatzea* esaten zitzaion lehenago denboretan.

204. *Urteko zein sasoiatan hasten ziren harremanik gehienak? Harreman horien balioa eta apurketa. Ugariak ziren familia bereko senideen arteko, herritarren arteko edo herri ezberdinetako neska-mutilen arteko ezkontzak?*

Haurtzaroan bere "andregai" zuen mutiko bakoitzak. Hori izan da kasu arraro batzuetan benetako harremanen hasiera, txantxazko harremanak egiazkoak bihurtuz, baina harreman formalen hasiera udaran zehar zen gehienetan. Udaran beste garaietan baino askoz gehiago ateratzen zen etxetik, dantza egiten zen igande eta jaiero eta batipat jendea etxez etxe zebilen askotan jai edo lanarengatik. Egiazko harremanak errazagoak ziren jendeak elkar ikusten zuen garaian.

Hasten ziren harremanak sekulakoak izaten ohi ziren. Begi bistan zebilen beti mutila neskaren ondoan, inondik ere besteari eutsi gabe. Orain berriz bikoteak itsatsiak ikusten dira, baita musuak emanez nonnahi, jendearen aurrean berdin. Lehenago ez, musuren bat lor ziteken, baina ilunpean eta izkaturikan, eta ez beti. Harremanen haustea nahiz eta anitzetan ikusia, ez zen onetsia eta nahigabe edo disgusto handia hartuko zuen norbaitek.

Familia berberakoen arteko ezkontza-harremanak naharoak ziren, baina beti lehengusu txikien edo urrunen artekoak. Ezagutu dira lehengusuen arteko ezkontzak, hori bai. Ezkontza gehienak herrikoen artekoak ziren, baina beste herri batetara ezkontza egitea onetsia zen, andregaien artean batez ere. Orain oso normalak dira, herri arteko harremanak hobetu baitira osoz.

205. *Ezkontza eskatzea. Euren seme-alaben nahia kontuan hartu gabe gurasoek ezkontzak moldatzeko ohiturarik bazegoen? Edo jartzen zizkioten inolako oztoporik seme-alaben nahiari?*

Mandatu formala gurasoek egiten zuten batzuetan, baina gehienetan ez zen mandaturik egiten, formalki behintzat. Egiten bazen ezkongaien harremanak heldutasunera heltzen zirenean egiten zen.

Ezkontza batzuetan gurasoek egiten zuten bere kontuz, neska eta mutilaren nahia aditu gabe, eta batzuetan baliteke haien borondatearen aurka. Hala eta guztiz ere zera esan behar: bista onekoak zirela gurasoak, konponketa horiek askotan emaitza onekin aurrera irten zirelako.

Formalki egiten zenean andregaiari eratzun ederra edo beste opariren bat egitea posible zen.

Goizuetan ez da ezkontzeginik ezagutu.

206. *Non eta noiz elkartzen ziren ezkongaiak?*

Dantza lekua zen harremanak hasteko eta elkar ikusteko neska mutilek zuten lekurik aproposena. Elkar ikusteko, edozein leku izan liteke aproposa harremanak maila formal batetara helduz gero, baita andregaiaren etxea.

Ba liteke neska bat mutil batek baino gehiagok begi jota izatea eta behin baino gehiagotan gertatu da zoriontsuak, baserri edo etxera itzultzean, ilunpeko batean harrkada on bat aurkitzea erdaiunatuak eskeinia.

Lehenago denboretan hamasei-hamazortzi urtetara arte ez ziren kaleratzen mezatara ezik. Meza entzun eta berehala baserrira itzuli behar agudo. Baserrietako gazteagoek baserrian bertan ematen zituzten igande eta jai egunetako arratsaldeak, kartetan edo edozein jokotan. Baserri batean biltzen ziren alderdi bateko baserriar gazteagoak eta handik ere harreman sendoak irten ohi ziren. Harreman horiek luza zitezkeen gero kalean, esandako adinetik aurrera. Herriko jai eta, zer esanik ez, guztiak kalera ahalik eta gehien.

207. *Nolakoak ziren ezkongaien harremanak beste ezkongabeekin? Herriko gazteek behartzen zuten kanpoko mutil ezkongaiak zergaren bat ordaintzera?*

Kortejatzea formalizaturik izan arte, etsaigo sutua izan liteke bi, hiru eta mutil gehiagoren artean neska batengatik, baina harremanak formalak egin ondoren ez zen beste egitekorik behazuna ireztea ezik. Orduko portaekek baretu egiten zuten, argipean gutxienez.

Lehen ez zen onesten beste edozein heritik norbait neska on bat harrapatzekotan etortzea. Bidegabe horren trukez, harri bat baino gehiago iraganen zitzaion burutik hurbil etorriari, izkutan herriko mutil batek bidalia. Beste zergarik ez.

208. *Ezkontzako baldintzetarako parte hartzen zuten gurasoek? Non, noiz eta nola praktikatzen ziren kapitulazio horiek? Orduan aukeratzen zuten gurasoen oinordekoa?*

Aditua dute gure informatzaileek kapitulazioen kontua, baina ezagutu dutena askoz informalagoa zen, hitzeko itune besterik ez zen. Honela konpontzen ziren Goizuetan arazo hauek: Ba zuten gurasoek askatasun osoa etxaldekora aukeratzeko, baina ba zen seme zaharrena aukeratzeko ohitura zaharra. Etxaldekokoak bereak izango lituzke lurra eta hazienda, baina beste senideek beren zatia eraman behar ere: *dotea* zen. Dirutan emango zieten ahal bazen eta, ezina bazen, dotearen balioa ahal zen moduan emango zitzairen. Etxaldekokoak eta dotea hartuko zutenek beren laguntza emanez jarraituko zuten etxean, momentu horretara arte bezala, eta etxetik kanpo jasotzen zutena etxerako zen soldadutzara joan arte. Handik aurrera, norberak jasotzen zuena berarentzako zen.

209. *Zeintzuk baldintza ezartzen zituzten pertsonel eta ondasunel buruz?*

Goiz jakinarazten zieten gurasoek seme alabei itxaron beharko zuten zatia: norberari berea, dudarik gabe. Hots handirik gabe senargaiak andregaiari eta andregaiak senargaiari jakinarazten zion zer espero beharko zuten. Norberak bere zatia aurkezten zuen eta horrekin ba zekiten nolako proiektuak egin ahal izango zituzten. Herri kozkorra izan arren Goizueta, etxe eta baserri bakoitzaren egoera ekonomikoa ondo ezagutzen zuten guztiek. Ustekaberik ez zen itxaroten ez alde batetik, ez bestetik.

210. *Kapitulazioen ostean izaten zen janaldi edo ospakizunik?*

Hots handirik gabe, ospakizunik gabe konpontzen ziren kapitulazio informal horien arazoak. Ez otordurik ez besterik.

211. *Nolakoa izaten zen gehienetan ezkontsaria? Irabazitako ondasunetara ala etxeko ondasunetara osatzen zuten? Nork ordaintzen zuen? Senarraren ala emaztearen gurasoek? Noiz eta nola egiten zuten ezkontsariaren ordainketa?*

Etxaldeak ongi ezagutuak zirela eta horregatik etxaldekoak ezkontzara eramango zuenaren berri guztiek zekiten kasu ertainetan. Ba liteke etxe edo baserri batean uste baino urre gehiago izatea baina... herriko "sudurrak" ez ziren nolana hikoak, ez. Guztiek zekiten zertan zebilen norberaren dotea, mutilaren dirua, neskaren arrea. Etxaldekoa ez zen mutilaren doteak, diruaz gain, alor edo baratze txiki bat, etxe bat bizi izateko... eraman zitzaizkeen etxeko ekonomiararen arabera. Neskak bere dotean dirua, ezkonberrien gelako altzairuak, haren arropa osoa eta zurimanta eraman zitzaizkeen. Ezkonduen langiletasunaren arabera ezberdintasun handiak izaten ziren ezkonduen artean: mutilak aurreratutako diruan, neskak prestaturiko zurimantan eta abarretan.

212. *Ituna egin ondoren, ezkontzarik egiten ez bazen, zer ordain eskatzen zen? Itun gabeko ezkontza; eraginak.*

Etxaldekoaren ezkontza ez bazen, bi aldetikako gurasoek beren parte ordaindu behar ezkontzako gastuetan. Etxaldekoarena bazen etxaldera zetorrenaren gurasoek dotea ordaindu behar zuten. Dotea ahal zenean ezkontzara eramaten zen, baina gerta zitekeen etxean prest ez egotea eta ahal zenean eta ahal zen moduan ordaintzea.

214. *Non eta nola zabaltzen ziren ezkondeiak? Zeintzuk ohitura zeuden ezkondeiak zirela eta?*

Pregoiak elizan, igandeko meza nagusian egiten dira. Orain aldi batez, baina lehenago denboretan, duela gutxi arte hiru aldiz egiten ziren, ezkontza baino lehenagoko

hiru igandetan. Aldi batez egiten baziren... susmoko gauza. Hirugarren pregoia irakurri eta inor ez bazen zerbait esan lezakeenik, ezkontza galeraz lezakeenik, ba zen elizaren aldetik dena prest.

Egun hontako ospakizunik nagusia *ezkoneztaia* zen, bi aldetako familiarentzako prestatzen zen otordua. Ahalik eta onena izaten zen. Etxean edo baserrian egitekotan, andregaiaren etxean egiten zen. Gero, ezkontzako otordua senargaiarenean, Aldameneoak, herriko lagun adiskideak eta abarrak etorten ziren zorionak emateko. Familiaren etxe batetik ez bazetozen oparitxo bat bidaltzen zitzaizkien: dultzeak, gailetak, pattar botila bat... gauza gutxi baina zerbait beti. Pregoi aurreko egunean bidaltzen zen. Gero ohitura hori galduz joan da osorik galdu arte.

Ezkontzara heltzeko baldintza, oinarriko dotrina jakitea zen. Apaizak bikotea eramaten zuen sakristiara berezirik lehendabizikoan, neska alde batetik eta mutila bestetik, eta bakoitzari jakin eta sinetsi behar zuena galdetzen zion. Gero biak batera eta beste azterketa bat egiten zion. Azterketa hau derrigorrezkoa zen eta hori gabe ez zen ezkontzan pentsatzerik. Orain ezkontzako ikastaldiak Arantzazun ematen dira eta beste lekuetan ere bai. Bartzuek egiten dituzte.

215. *Nola izendatzen zituzten aitabitxi-amabitxiak? Zeintzuk ziren beraien betebeharrak?*

Ezkontzaren atautxi-amautxia nornahi izan daiteke, baina ohitura zaharra zera zen: atautxia neskaren aita iztea, amautxia berriz mutilaren ama. Bizkor ez baziren, elizara ongi joateko gauza ez baziren mutikoak alaba bat aurkezten zuen amautxizat eta neskak anai bat atautxizat. Hori zen ohitura. Lehen semearen bataiokoak izango dira ere ezkontzako atautxi amautxia. Atautxi amautxiak *erresak* (arrak) eta eraztunak eraman eta bere garaian aurkeztu behar dituzte. Beste eginbeharririk ez, ezkontzako mezan gutxienez.

216. *Nola egiten zen ezkongaien azken agurra?*

Gaztetako espeida azken boladetako gauza da, duela hogei edo hogeita bost urtekoa. Lehenago ez zen horrelakorik ezagutzen. Orain, ospatzekotan, egun berean biltzen dira taberna desberdinetan alde batetik neskaren lagunak eta beste aldetik mutilarenak. Oraingo ohitura norberak berea ordaintzea da eta denen artean ezkongaiarena. Afari eder batez ospatzen da.

217. *Nortzuk gonbidatzen zituzten ezkontzara? Nork egiten zituen gonbiteak?*

Ezkontza bazkarira joaten ez zirenak ez ziren mezatarra joaten. Hori zen ohitura. Oraingo zenbait ezkontzara gonbidatu anitz dator: familia osoak, lagun-adiskideak, aldameneoak eta abar eta abar. Lehenago ez, ez zen hala. Bi aldetako familia osoak, osaba eta izekoak. Horiek mezatarra, horiek bazkarira ere.

Gonbidatuena zerrenda ezkongaiak egiten dute baina gonbidaketako txartelak gurasoek sinatzen dituzte, txartelak gero eta dotoreagoak dira. Bada gonbidaketa txartela eta bakarrik jakinaraztekoa ere.

218. *Bazegoen ohiturarik aitabitxi-amabitxiak ezkongaiari zerbait oparitzeko? Zer opari egiten zieten senideek eta auzokoek ezkongaiari?*

Atautxi amautxiak ez dute oparirik jaso. *Buztan buru*. Teoria mailan ez dira gonbidatuak bere oparia aurkezteko behartuak, bai berriz pratikan. Oraingo ohitura Goizuetan dirua ematea da, opariak ez bikoizteko, edota ezkontza zerrenda bat izatea. Lehenago opariak ez ziren beharrezkoak. Atautxi amautxiak bai, beren oparia aurkeztuko zieten ezkonberriei, baina gauza gutxi gehienetan, baliabide ekonomikoaren arabera.

Oraingo ezkontzetan argiz eta lorez betetzen da eliza. Aldare guztiak apaintzen dira pixkat, baina aldare nagusia eta bere inguruak ezin apainduago agertzen da. Ezkontza batzuetan kanta bereziak entzuten dira eta oraingoetan baita txistua eta dantzariak auresku bat egiteko ezkonberrien aurrean lagun eta herriaren omenaldizat. Ba da "Humore Ona" izeneko elkartearen dantza talde ederra. Haiak dira arduradunak. Loreak Donostiatik ekarriak eta ezkongaiak ordainduak dira. Zer esanik ez, lehenago denboretan deus ala gauza gutxi.

219. 220. *Ezkontzako ezkontzako zeremoniara zihoazela, laguntzen zien laguntalderen batek? Non elkartzen zen laguntaldea? // Nola zeuden jantzita ezkontzakoak eta laguntaldekoak? Nolako apaindurak zituzten soinean? Zein ordenatan joaten ziren laguntaldekoak elizara? Eta zeinetan bueltatzen ziren?*

Goizueta herria zati bitan banaturik dago, alde batetik kalea eta bestetik baserriak. Hauak gero eta gutxiago dira, baina lehenago denboretan herriko jendearen erdia baserrietan bizi zen. Kalekoak baziren ezkontzakoak norbera bere etxetik atera eta *zimiterioan*, elizaren aurrean biltzen ziren, handik elizara kiri-kirian sartzeko. Baserrieta-koak, berriz, batzuetan urrun urrun bizi zirelarik kaleko etxe batean, familiako etxe batean edo bazkaria prestatu behar zuen tabernan biltzen ziren elizara joan baino lehen. Han konpontzen zituzten gonbidatuak beren jantziak. Han jantzen zen andregai, horrela ez zuen inork ikusten jantzirik azken momenturaino. Etxe edo taberna horretatik ateratzen ziren ezkontzakoak hots eta ospe handitan elizaren aurrean dagoen zimiterioraino. Han konpontzen zen elizara sartzeko lerroa.

Elizako atea zabaldu eta sartzeko lehenak senargaiak eta amautxiak. Gero gonbidatu guztiak eta azken azkenak andregaiak atautxiarekin. Senargaiak eta amautxiak aldare aurrean zeunden andregaiak eta atautxiaren zain. Gonbidatuak beren eserlekuetan. Dena kirian eta has daitete zeremonia.

1.958 urtetara arte gutxi gora behera andregaiak beltzez edo urdin ilunez jantzen ziren. Handik aurrera zuria

gero eta ugariago. Orain guztiak, familian hilik ez badago, zuriz jantzen dira. Gonbidatuak ezin dotoreagoak eta senargaiak zer esanik ez. Eskandalutzat ikusiko zen lehenago denboretan dotoretasun horren gastua. Orain egunerokoa da. Ezkongaien janzkera dotoreak azalketa negargarri bat merezi du. Andregaiaren jantziak berezkoak ziren beti, askotan andregaiak berak edo herriko dendari batek eginak. Baina senargaiaren jantziak behin baino gehiagotan mailegatuak ziren. Gorbata ea beti mailegatu zen, zeren senargaiak eta atautxiak gorbataz horniturik agertzen baitziren elizako zeremonietara. Elizatik atera eta gorbata kanpora, baina ez erosotasunarengatik baizik eta berezkoa ez baitzen eta itzuli beharko zen gero.

Elizatik ateratzeko kirian ezkonberriak lehenak ziren eta beren atzean atautxiak eta amautxiak eta azkenean gonbidatuak.

221. *Zeintzuk berezitasun zituen elizkizunak? Non egiten zen? Zeintzuk ziren ezkontzako egunik egokienak?*

Ezkontzaren inguruan ez dute ezagutu bereiztasunik gure informatzaileek. Ezkontza, gehienetan herriko eliza nagusian ospatzen zen. Asuntziora, abuztuko ama birjina eliza eta herriko patroia da. Ba da Goizuetan beste eliza bat, Madalenarena eta heritik hurbil ermita bat, San Antonena. Eliza nagusia obretan zegoelarik Madalenan egiten ziren ezkontzak. Hortik at Madalenan ezkontzaren bat ezagutu dute gure informatzaileek, baina oso gutxi. San Antonen ermitan, berriz, ez dute ezkontzarik ezagutu. Ezkontzako egun berezia larunbata zen baina baita edozein asteko egunetan ezagutu da ezkontzarik. Garizuman ez, eta garizuma txikian (adbertu) goiz goizean edota ilun iluntzean egiten ziren, goizean maizago. Urte osoan alargun edo esperon zeunden bikotearenak goiz goizean egiten ziren ere, hots eta ospetik urrun.

Eztei zibilak ematen dira. Lehenago denboretan horrelako ezteiak heritik kanpo egiten ziren. Oraingo gazteek onartzen dute baina ezkontza gehienak elizakoak dira.

222. *Ezkontzako agintzen zuten euren arbasoen arimen aldeko mezarik? Etxeko hilobira eramaten zuten oparirik edo argirik? Noiz egiten zuten hori?*

Ezkontza egunean ez, baina ezkonberriak hilez oroitzen ziren eta aldi batez andreak senarraren eta bere familiaren sepulturetan meza ondoko erresponsoak agintzen zituen eta bi sepulturetan sari bana ordaintzen zuen: sos bina lehenago, gero sueldo bana eta azkenean pezeta bana. Sepulturetan bela edo argizeria bazen beti.

Familiatoko batean hil berririk bazen, ezkontzako zeremonian eta geroko bazkarian musikarik ez. Dantzarik ere ez, zer esanik ez. Gainerakoa berdin berdintsua zen.

223. 224. *Ezkontzako kanpotarra ezkontzaren bizilekura eramatea. Nork laguntzen zion? Zein ordenatan zihoazen? // Ezteigurdirik eramateko ohiturarik bazegoen? Zer eramaten zuten bertan? Nola apaintzen zituzten*

gurdia, idiak edo behiak? Nork zuzentzen zuen gurdia? Nola deitzen zaio arriari? Animaliairen batzuek ere bazeuden arriari? Zeintzuk ziren ezkontzako opariak? Nork eramaten zituen?

Duela asko galdu omen zen Goizuetan arreoa andregaiaren etxetik senargaiaren etxera gurdiz eramateko ohitura zaharra, baina guztiek aditu dute. Mendeko lehen urteetan irauten zuen ohiturak baserrietan, kalean ez. Beste etxera eramaten zen neskaren doteak arreoaren izena. Arreoaren eramateko gurdia ongi garbitu behar, baita pintatu behar bazen. Batzuek gurdia koipea kentzen omen zioten bidaia zaratatsuago eta hobe gerta zedin. Behiak ongi apainduak ere, kopeta berriak, eta fale garbiak zeramatzaten. Gurdian ahalik eta txintxarri gehienak jartzen ziren. Behiak ere eramaten zituzten, eta txintxarri bat bakarrikan bazen zamaren gainean kokatzen zen. Andregaiaren anairen bat gidari... Kontu aditua da gure informatzaile guztientzat.

229. 231 *Ezkontzako janaldian egiten zen ezer berezirik? Non egiten zuten janaldia? Zein zen janariaren ordena? Zein ordenatan esertzen ziren gonbidatuak? Ezkonberriek bete behar zuten arau berezirik janaldian? // Egiten zen dantzaldi berezirik? Zeintzuk jostaldi eta joko egiten zituzten? Zeintzuk musika-tresna jotzen zituzten? Zeintzuk kanta abesten zituzten?*

Ez da errito berezirik ezkontzako bazkarian. Bedeinkazioa apezak egiten zuten gonbidaturik bazen. Bestela atautxiak edo amautxiak. Aintzinako denboretan etxea edo baserrian bertan egiten zen bazkaria. Gero herriko tabernetan. Orain jatetxeetan.

Hauxe ohi zen lehenago denboretan bazkariko menua: garbantzoak azakin nahasiak, babarrunak edo arroza; Bigarrenekatzat udaberri eta udaren arkumea bere saltsan. Arkumerik ez bazen ardiki saltsatua edo oilaskoa. Bazkalondokoa arroza esnekin, arraultzasnekiak edo natillak, tarta on bat etxean egina, noski. Ardo ugaria, sagardoa ere bai, kafea, anisa eta koñaka. Mendearen erdian bazkaria hobetuz eta handituz joan zen eta tabernetan egiten zen. Gure informatzailearen batek taberna bat zuen Goizuetan. Ez zen taberna bakarra, ezta handiena ere, baina ongi gogoratzen du ezkontzetako bazkarian ipintzen zena: sarrerak edo entremesak: urdai azpikoa, txorizoa, kokreta eta abarra, zopa on bat gero, paella, arraia, oilaskoa edo arkume erreka, tartak, kafea, anisa eta koñaka, puruak... denetarik. Hori zen ekonomia ertaineko ezkontzako bazkaria Goizuetan 1.950 eta 1.960 urteen artean. Gero hobetuz joan zen eta oraingoa guztioak dakigu nolakoa den eta, batez ere, zer balio izugarrikoa duen.

Mahai eta gela buruan ezkonberriak, atautxi-amautxia ondoan dutelarik. Apeza ere hurbil. Gainerako gonbidatuek ez zuten leku berezirik, nonnahi jartzen ziren.

Bazkaldu ondoren akordiona eta kanta ugariak. Txistularirik bazen txistua ere. Oso hedatua zen Goizue-

tan bertso zaharrak kantatzeko ohitura. Goizuetan bertsolari famatuak izan dira beti, baita txapeldunak ere. Ez zen batere arraroa bazkari batean bertsolariak agertzea ezkonberrien ohorean kantatuz.

230. *Etortzen zen emakume jakinik ezkontzara gonbidatuei ezkonberrien logela erakusteko, emaztegaiak ekarritako gauzen zerrenda gonbidatuen aurrean agertzeko, e.a.?*

Aditua dute gure informatzaileek lehenago denboretan bazela andregaiaren etxeko bat, emakumezkoa beti, gonbidatuen aurrean ezkonberriaren arreoaren zurimanta batez ere erakusteko arduraduna. Langiletasuna izan da gure artean tasunik preziatuena eta, berriz, alferkeria gorrotuena. Zurimantan alde handia izan liteke andregaiaren artean, langiletasuna dela bide. Horrela, zurimenterekin batera andregaiaren birtuteen gorantza egiten zen era erraz eta emankorraz.

232. *Zenbat denbora irauten zuten ezkontzako ospakizunak?*

Kalean, mende hontan gure informatzaileen ustez egun bakarrekoak izan dira ezkontza ospakizunak. Baina zenbait baserrian ospakizuna anitz luza zitekeen alor edo hazienda lan premiazkorik ez bazen. Txahal eder bat hil behar jatekoa ugari zedin. Gehienetan zenbat eta baserri aberatsago orduan eta ospakizun handi eta luzeago, baina batzuetan baserri arruntetan izugarriko eztaiak ospatzen ziren, zer esanik ez, ospakizun horietan ezkonberriek parte hartzen zuten.

Kaleko ezkonberriek lehen eta bigarren gaua herritik at ematen zituzten. Lehen lehengo ezta bidaia bi egunetakoak ziren: herritik Donostiara dilijentziaz lehen, autobusez gero. Mendea aurrera joatearekin batera luzeagoak izan ziren ezta bidaia, 7 egunetakoak kasu batzuetan. Orain hamabostekoak izaten ohi dira, eta ezkonberriak noranahi joaten dira.

233. *Egiten zuten ezteiondokorik? Noiz? Zer egiten zuten?*

Baserrietako zenbait ezta zazpi egunez luza zitekeen, eta horrenbeste ez bazen bi, hiru edo lau egunez bai. Ezteiondoa egun batzuetakoa zen beti. Kalean ez, ordea, esan dugunez ezkonberriak herritik kanpo zeundelako, ezta bidaian.

234. *Alargunak edo zaharrak ezkontzerakoan, zeintzuk ohitura berezi zituzten? Tobera-jotzerik edo antzekorik eratzen zuten? Zer egiten zuten orduan eta zer egiten zuten ezkongaiak halakoetaz libratzeko?*

Arauzkoak ez ziren eztaietako ezkongaiak irrigalak ziren beti, baina irrikeria hori ez zen inoiz zurrumuruetatik aurrera iragan. Gure informatzaileek ez dute ez tobe-

rak jotzerik ez besterik ezagutu. Hori bai, ezta horiek ilun iluntzean edo maizago goiz goizean ospatzen ziren, gero zuzen kanpora joateko gainerako ospakizunari jarraitzeko.

235. *Nola ikusten zuten adulterioa? Nola eta nork jartzen zuen zigorra?*

Herritik kanporatzea zen ezkontza kutsuaren zigorra, familiak berak agindua, alkate edo epaileak parte hartu baino lehen. Gutxitan gertatu zen, baina gertatu zenean hala zigortua zen.

236. *Gaizki konpondutako senarremazteak banatzea. Sarri izaten zen halakorik? Dibortzioa; sarri gertatzen zen? Zerk eraginda? Dibortziatuen ohaidetza.*

Ezagunak dira Goizuetan ezkonduen bereizteak, baina neurri txiki batean. Azken boladetan maizago, baina ez dira gehiegi entzuten. Zenbaitzuk, denbora igaro eta gero berriro elkartzen dira. Beste zenbaiten bereiztea sekulakoa da.

INFORMATZAILEEN ZERRENDA

Echeverria, Benita, 1918 urtean jaioa.
Huici, Lourdes, 1959 urtean jaioa.
Iribarren, Ester, 1966 urtean jaioa.
Iribarren, José Antonio, 1957 urtean jaioa.
Iribarren, Patxi, 1961 urtean jaioa.
Irurzun, José Esteban, 1940 urtean jaioa.
Perurena, Cecilia, 1931 urtean jaioa.
Perurena, Ramona, 1926 urtean jaioa.

LABURPENA

Egileak Goizueta herriko (Nafarroa) jaiotzaren gaineko ohiturak; batekoak, umetaroakoak eta gazte denbora-koak, ezkongaietakoak eta ezkontzakoak bildu ditu, bai eta Nafarroako herri horretako gai horien inguruko tradizio eta sinismenak ere.

RESUMEN

El autor ha registrado los ritos de paso del nacimiento, bautismo, infancia y juventud, noviazgo, matrimonio y boda, y las costumbres, tradiciones y creencias con ellos relacionadas, practicados en la localidad navarra de Goizueta.

RÉSUMÉ

L'auteur a enregistré les rites de passage de la naissance, du baptême, de l'enfance et la jeunesse, des fiançailles, du mariage et la noce, ainsi que les coutumes, les traditions et les croyances en rapport avec ces derniers, pratiqués dans la localité navarre de Goizueta.

SUMMARY

The author has recorded the rites of passage concerning birth, baptism, infancy and youth, engagement, marriage and the wedding, and the customs, traditions and beliefs related to them, as practised in the Navarrese locality of Goizueta.